

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**Estolda zerbitzua prestatzeagatiko tasaren kontribuzio padroia. 2021eko urtea. Espedientea: 2021/26/S213**

Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga Kudeaketaren Zerbitzuak 2021 urteko prestatu den Audio udalerriko estolda zerbitzua prestatzeagatiko tasaren kontribuzio ordaindu behar dutenen zerrenda.

Alkate-udalburuak onartu du 2021eko abenduaren 22, 2063 zenbakia duen ebazpenaz. Zerrenda hori jendaurrean erakutsiko da ALHAOn iragarki honen argitalpen egunaren biharamunetik hasita hamabost (15) lan eguneko epean zehar.

Interesa dutenek aipatu den tributazioko espediente hori aztertu ahal izango dute herriko etxeko -udaletxeko- Udal Kudeaketa Arloko Ekonomia eta Zerga bulegoan (Herriko Plaza bigarren solairuan) 9:00/14:00 ordutegi barruan. Formula ditzakete, baita ere, euren eskubideekiko egoki eta komenigarri irizitako azalpen eskaerak, alegazioak edo/eta erreklamazioak.

Kontribuzio padroia jendaurrean erakusteak esan nahi du eta suposatzen du bere barruan sartuta dauden kitapenen jakinarazpen kolektiboa egiten dela, otsailaren 28ko, 6/2005 Arabako Tributuen Foru Arau Orokorreko 98. artikuluko 3. atalak eta kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko udal ordenantza fiskal orokorreko 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aipatu den alkate-udalburuko ebazpenaren aurka kontribuzioa ordaindu beharra dutenek berraztertze errekurtsua jarri dezakete, hilabete bateko (1) epearen barruan, iragarki honen jendaurreko erakusketa aldia amaitu ondorengo biharamunetik zenbatzen hasita.

Azalpen eskaerak, alegazioak, erreklamazioak eta berriro aztertzeko errekurtsuak alkate-udalburuari zuzendu behar zaizkio, lehenago aipatu den epearen barruan.

Borondatez ordaintzeko epea, bi hilabetekoa izango da, 2022ko otsailaren 4 egunetik 2022ko apirilaren 4 egunera arte, biak barne hartuta.

Helbideratuta dauden erreziboak 2022ko martxoaren 4 egunean kobratuko dira.

Tasaren ordainketa banku edo aurrezki kutxan helbideratu barik duten herritarrentzako kobrantza eta dirubilketa Kutxabank, Laboral Kutxa eta Nafarroako Rural Kutxako bulegoen bitartez egingo da, kutxa horiek herritarren arretarako zabalik dauden ordutegian zehar, kobrantzaz arduratuko den kutxak etxera bidalitako ordaindu beharreko errezibua aurkeztuta. Erreziburik ez bada jaso ala jasotakoa galdu bada, errezibuaren ale bikoiztua eskatu herriko etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ), Herriko Plaza, behea ezkerrean.

Borondatez ordaintzeko epea amaitu ondoren, ordaindu barik geratu diren errezibuak automatikoki eta berez behartze-bidezko derrigorreko kobrantza prozeduran sartuko dira eta ordaindu beharreko zenbatekoari gehitu beharko zaizkio legeetan erabakitako gainkarguak, berandutza-korrituak eta, hala badagokio, sor litezkeen berandutza eta behartze-bideagatiko kostuak.

Audio, 2021eko abenduaren 23a

*Alkate-udalburua*  
**ANDER AÑIBARRO MAESTRE**